

GIL 71

Oiartzun ibaiaren terrazak



Gaur egungo T1 terraza zabalaren ikuspegia.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**


Lat.: 43° 17' 57.49" N

Long.: 1° 52' 39.78" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 591.030,64 m

Y: 4.794.664,19 m



Nola iritsi

Oiartzundik. Bidegorritik ikus daitezke terrazak.



Oiartzun ibaiaren T2, T3 eta T4 terrazaren mailakatzea.

Deskribapena

Oiartzun ibaia, dirudienez, nahiko gaztea da; energia handia du, eta higitzeko ahalmena ere handia da. Txikia izan arren, emari handia du, inguru horretan euri asko egiten baitu eta mendi-erliebe nabarmena baitago bailaran.

Ibai batek, ibai-haran bat higitu ahala, zenbait maila uzten ditu hormetan, terraza izenekoak. Oiartzun ibaiaren haranean, lau terraza-maila daude, gaur egungoarekiko altuera desberdinetan kokatuak.

- 4. terraza: 20-22 metro.
- 3. terraza: 10-12 metro.
- 2. terraza: 3-5 metro.
- Gaur egungo terraza: 0-2 metro.



5 bat metroko koska bat T2 terrazaren eta T3 terrazaren artean.



Uharriak gaur egungo ibilguan. Lehen terrazaren maila oso ondo hauteman daiteke.


Azaleratze gehienak Ugaldetxo eta Ergoien inguruan daude. Izan ere, handik gora dago ibaiaren burua, higatze-prozesuak nagusi diren parte. Handik behera, berriz, harana estuario bihurtzen da, eta, beraz, ibai-metakinak lurperatuta daude. Betegarri kuaternarioa oso azkarra izan zen, eta sedimentu-karga oso bereizia ibaiaren hiru zatien artean.

Behatzeko punturik onena

Oiartzungo bidegorritik, terrazaren mailak ikus daitezke.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 1, GIL 2, GIL 3, GIL 4, GIL 5, GIL 139.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 72, GIL 75.



Oiartzungo terrazen eskema.



T2 terraza uharridunaren profila.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafiko/Sedimentologikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Edeso Fito, J. M. (2006): *"Caracterización granulométrica, morfométrica, litológica y sedimentológica de las terrazas fluviales del valle del río Oiartzun"* (Gipuzkoa, País Vasco)". Lurralde, 29.
- Portero García, G., Salazar Rincón, A., Pascual Muñoz M.H., Ortega Ruiz, I., Olivé Devó, A. (1991): *Interes geologikoko puntuak: Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia (Donostia). 167 or.